



## II. ATALA

### BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

#### Gautegiz-Arteagako Udala

**Pertsona bati baja emateko prozesuaren hasiera, Biztanleen Erroldan bidegabez erroldatuta egotearren.**

Udal hau jakitera heldu da Eranskinean ageri dan laguna bidegabez dagoela inskribatuta Gautegiz Arteagako Biztanleen Udal Erroldan, ez dalako bizi erroldatuta ageri dan helbidean, espedienteen jasota dagozan ikerketek erakusten dabien lez, eta horrenbestez hausi egiten dabela Toki Erakundeetako Lurraldeko Biztanleria eta Mugaketako Erreglamentuaren 57. eta 68. artikuluetan xedatutakoa; horregaitik, eta Estatistikako Institutu Nazionalaren zuzendariaren eta Lurralde Lankidetzako zuzendari orokorraren 1997ko uztailaren 4ko Ebazpenaren 3. atalean xedatzen danari jarraituz, hauxe agintzen dot:

*Lehena:* Behar diren tramiteak hasi Eranskinean ageri diren lagunei baja emateko Gautegiz Arteagako Biztanleen Erroldatik, bidegabez erroldatuta egotearren.

*Bigarrena:* Interesatua bere helbidean aurkitzerik ez dagoenez, Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarki baten bidez jakinazotea eta 15 eguneko epea emotea deritxozanak alegatzeko. Epe horretan alegazinerik egin ezik behin betiko baja emongo jako, gehiagoko tramite barik.

Gautegiz Arteagan, 2020ko ekainaren 29an.—Alkatea, Juan Felix Naberan Ozamiz

**ERANSKINA**

Espediente zenbakia	Pasaportea / NAN	Helbidea
2020-00215	Y02753844E	Zelaieta, 24 bajo
2020-00216	RD4457090	Zelaieta, 24 bajo
2020-00214	X8065750H	Zelaieta, 59 - 1
2020-00214	X8980794F	Zelaieta, 59 - 1